



LAGUN-AROK KUDEATUTAKO LEHEN MAILAKO ARRETARI DAGOKION JARDUERA OSAKIDETZAN INTEGRATZEKO XEDEZ, EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREKIN 2005-1-31N SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONDORIOZ, “LIGA DE ASISTENCIA Y EDUCACIÓN DE MONDRAGON” IZENEKO ERAKUNDEAREN HISTORIA KLINIKOAK OSAKIDETZARI EMATEARI DAGOKIONEZ”, EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILEKOK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOA

AURREKARIAK

2005eko otsailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko k idatzi honen goiburuan aipatutako gaiari buruzko ahozko kontsulta helarazi zion Datuak Babesteko Euskal Bulego honi.

Kontsulta horretan agerian jarri zen, zehazki, “*Liga de Asistencia y Educación de Mondragón*” izeneko elkarte (hemendik aurrera Liga) Lagun-Aro BGAEko (Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea) mutualistei eta onuradunei Medikuntza Orokorreko eta erizaintzako zerbitzuak ematen aritu dela denbora luzez; izan ere, Lagun-Aro Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzailea izan zen Osasun Laguntzako zerbitzuaren kudeaketan, 2004-12-31ra arte, alegia lankidetzaz hori amaitu zen egunera arte.

2005-1-31n Lankidetzaz Hitzarmen bat sinatu zen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta, haren bitartez, Osakidetzaren eskuetan geratu ziren Lagun-Aro – BGAEk ordura arte kudeatzen zuen lehen mailako arretari zegozkion jarduerak guztiak.

Osakidetzak lehen mailako arreta bere gain hartzeko, Ligako hiru mediku erakunde horretara pasatuko dira, eta orain arte zituzten paziente berberak arduratuko dira bertan.

Osasun Sailaren ustez, hitzarmena behar bezala betetzeko ezinbestekoa da lehen Lagun-Arok artatzen zituen pertsonen osasunari buruzko datuak, automatizatu gabeko fitxategietan daudenak, tratatzea eta haiek historia klinikoei buruzko “OSABIDE” informazio-sisteman sartzea.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko 2/2004 Legearen 17. artikulua, n) atalean, honako zeregina esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Arestian aipatutako araudiari jarraiki, Datuak Babesteko Euskal Bulego honi dagokio egindako galderari erantzutea.

IRIZPIDEAK



I

Aldez aurretik komeni da aipatzea, egindako azalpenetik ondoriozta daitekeen bezala, osasunari buruzko datuak jasotzen dituzten fitxategiak pribatuak direla, haien arduradunak Ligako medikuak direlako (azalpenetik ondorio hori ateratzen da) eta Osakidetzan integratuko direlako, edo jada integratu direlako.

Hori kontuan hartuta, eta Aurrekarietan aipatutako lege-agindua aplikatuz, ez dagokio Bulego honi fitxategi pribatu horien ikuspegitik inolako adierazpenik egitea.

Bulego honen funtzioen barnean sartzen da, ordea, Osasun Saileko k egindako kontsulta zehatzari erantzutea, galdera hori Osakidetzak artatuko dituen herritarren osasunari buruzko datuen tratamenduaren ikuspegi zehatzetik egina den neurrian, ondorioz datu horiek fitxategi publiko batean sartuta geratuko direlako. Tratamendu hori burutuko dela aurreikus daiteke, administrazioak sinatutako hitzarmen batek hala jasotzen baitu.

Hitzarmenean aurreikusitakoa betez, ordura arte Osakidetzara pasatuko diren medikuen jabetzakoak izandako fitxategi pribatuetatik hartu eta historia klinikoei buruzko "OSABIDE" informazio-sisteman sartzea izango da, zehazki, datu horien tratamendua.

Beraz, kontsulta egin duen administrazioak osasunari buruzko datu pertsonalei emango dien tratamenduaren (jasotzea) eta datuak babesteko legea betetzearen ikuspegi zehatza da administrazio hori kezkatzen duena eta irizpen honetan erantzuten saiatzeko kontuan hartuko dena.

II

Aurreko puntua argitu ondoren eta gorago aipatu dugun ikuspegi zehatzetik, Osakidetzak artatuko dituen pertsonen osasunari buruzko datu pertsonalei emango zaien tratamenduak, Bulego honen iritziz, behar adinako estaldura du LOPDn jasotako datuen babesari buruzko legerian; gutxienez hiru ikuspegitatik.

Orokorragoa den lehen ikuspegi batetik, hasteko Lege horren 3 c) artikulua, tratamenduari ondoko definizioa ematen diona, ekarri behar litzateke hona:

“automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezerezteia eta lagatzea ahalbidetzen dutenak.”

Lege horrek berak, 5. artikuluan oro har interesdunak jakinaren gainean egotea eta beren adostasuna ematea eskatzen badu ere eta, era berean, artikulua horretako 4. idatz-zatian, aztergai duguna bezalako kasuen aurreikuspena jasotzen duen horretan adostasun hori eskatzen badu ere, hau da, ondokoa badio ere: *“izaera pertsonaleko datuak interesdunarengandik jaso ez direnean, fitxategiaren arduradunak edo horren ordezkariak esanbidez informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman beharko dio interesdunari, datuak erregistratu eta hurrengo hiru hilabeteetan, tratamenduaren edukia, datuen jatorria eta artikulua honen 1. idatz-zatiko a), d) eta e) letretan jasotakoaren inguruan, salbu eta interesdunari aurretiaz eman zaionean horren gaineko informazioa”,* egia da artikulua horretako 5. idatz-zatiak ondokoa aurreikusten duela: *“aurreko idatz-zatian xedatutakoa ez da aplikatuko, legeren batek esanbidez horixe ezartzen duenean, tratamenduak xede historiko, estatistiko edo zientifikoak dituenen, edo Datuak Babesteko Bulegoaren zein horren pareko autonomia-erkidegoko erakundearen arabera ezinezkoa denean interesdunari informazioa ematea, edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direnean,*



interesdunen kopurua, datuen antzintasuna eta izan daitezkeen konpentsazio-neurriak kontuan hartuta”

Izaera orokor berarekin, lege horretako 6. artikulua 2. idatz-zatiak xedatzen duenez, *“interesdunaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean”*.

Horrela bada, Bulego honek ez du behar adinako informaziorik, Osasun Sailak LOPDko 5.4 artikulua agindutakoa betetzeko egin behar lukeen ahaleginaren ezintasunari edo neurrigabetasunari buruz arrazoizko irizpide bat eman ahal izateko.

Dena den, gogoan izan behar da Datuak Babesteko Estatuko Bulegoak esana duela, aipatutako LOPDko 5.5 artikulutik ondoriozta daitekeenez, kasu zehatz bakoitzean argudiatutako salbuespena egokia edo desegokia den erabakiko duen administrazio-ekintza baten bitartez bakarrik hauteman ahal izango dela artikulua horretan adierazitako salbuespena. Ekintza horrek barnean hartuko du dagokion administrazio-prozedura bideratzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, azaroaren 26koan, ezarrita dauden berme guztiekin, eta Lege horren VI. Tituluan aurreikusitako arau guztiak bete beharko ditu, 15/1999 Lege Organikoko 35.2 artikuluan aurreikusita dagoen lege horren aplikazio gehigarria kontuan hartuta.

Dena den, interesdunak berak eskatuta hasitako prozedura bat izango da eta, beraz, ez da beharrezkoa izango prozedura hasteko ofiziozko erabaki bat hartzea.

Prozedura bideratzean eskatzaileari egiaztapenak benetan eskatuko lukeen ahaleginaren neurrigabetasuna egiaztatzeke eskatu behar zaio. 15/1999 Legeak, zehazki, 5.4 artikulua salbuespena aplikatzea egokia den ala ez baloratzeko, Bulegoak neurtu beharreko irizpidetzat ezartzen ditu datuen antzintasuna, interesdunen kopurua eta tratamenduaren arduradunak konpentsatzeko hartuko dituen neurriak.

Horregatik, beharrezkoa litzateke frogatzeko fasean interesdunei jakinarazteak benetan zein kostu izango lukeen zenbatzea eta, fase horretan bertan, hala dagokionean konpentsatzeko neurriak zein modutan hartuko diren adierazteko eskatzea.

Bestalde, azpimarratu beharra dago Bulego honen erabakiak hartzeko ahalmena, 5.4 artikuluan xedatutakotik ondorioztatzen denez, jakinarazpenak ahalegin neurrigabea eskatuko lukeen ala ez erabakitzera mugatuko dela, kasuaren ezaugarriak (eta bereziki arauan bertan aurreikusitakoak) kontuan hartuta.

Ondorioz, arauaren funtsetik ez da ondorioztatzen konpentsatzeko hartu behar diren neurriei buruzko erabakia hartu behar duena Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa denik, aitzitik, proposatu diren neurriak nahikoak diren ala ez bakarrik erabaki behar du. Horregatik, ez dirudi ebazpenak proposatu den neurria onartu edo baztertu dezakeenik; izan ere, neurri horren aurrean salbuespena aplika daitezkeen ala ez bakarrik adieraz dezake.

Hori dela eta, neurria nahikoa ez dela erabakiz gero, horrek argi eta garbi adierazita geratu behar luke ebazpen-proposamenean. Gainera, proposamen horretan adieraz daitezke, halaber (30/1992 Legeko 75. artikulua ezarritako prozedura behar bezain azkarra izatea bermatzeko), Bulegoak zein irizpide erabiliko duen egin den eskaera aintzat hartzeko nahikoak izan daitezkeen konpentsazio-neurriak mugatzeko; horrela interesdunak, beharrezkoa iruditzen bazaio, proposatutako konpentsazio-neurriak 30/1992 Legeko 84. artikulua eskaintzen dion audientzia-izapidean argitu ahal izan ditzan edo,



hala badagokio, berriak proposa ditzan.

Azkenik, prozeduraren ebazpena Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Zuzendariak eman behar luke, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren Estatutuko

12. artikulua prozedura horri buruzko aipamenik egiten ez duen arren, 15/1999 Lege Organikoko 36.1 artikulua esleitzen dion Bulegoaren Zuzendaritza eta Ordezkaritzako funtzioaren indarrean, eskumen hori berak duelako. Ebazpen horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Auzitegi Nazionalean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen laugarren Xedapen Gehigarriko 5. idatz-zatian ezarritakoa betez.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 6 artikuluan ezarritakoa betez, interpretazio hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren esparrura eraman daitekeenez, eta, jada esan dugun bezala, horri buruz erabaki bat hartu ahal izateko behar adina informazio ez dugun arren, ez dirudi hau administrazioa aurreikusten ari den kasua denik.

Bestalde, bistakoa da tratamendua kez duela helburu historiko, estatistiko ezta zientifikorik ere.

Halere, Bulego honek aztertu ditu osasunari buruzko datu pertsonalak tratatzeko interesdunaren adostasunaren baldintza bazterzea ahalbidetzen duten hainbat lege-aurreikuspen.

Horrela bada, Informazio eta dokumentazio klinikoaren gaitan pazientearen autonomia eta eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 2.5 artikulua araberak, *“paziente edo erabiltzaileek beren egoera fisikoari buruzko edo beren osasunari buruzko datuak eman behar dituzte modu leial eta egiazkoan, eta datu horiek lortzen lagundu behar dute, bereziki guztion intereserako edo osasun-laguntzarako beharrezkoak direnean.”*

Agindu hori betez eta, Osakidetzaren sisteman integratuko diren pazienteen osasun-laguntzaz bera arduratuko denez, haren sisteman integratuko direla kontuan hartuta, legearen funtsa behartu gabe uler daiteke sistema horretan integratzera doazen pazienteek datuak lortzen laguntzeko legeak duten betebeharrak, agindu horretan jasota dagoenak, barnean hartzen duela LOPDko 5.5 artikulua aipatzen duen lege-aurreikuspena, egingo den datu-bilketaz informatzeko betebeharra salbuesten duen arrazoi gisa.

Era berean, 41/2002 Legeko V. Kapitulu osoa irakurrita bakarrik ondorio bera ateratzen da inolako zailtasunik gabe eta Kapitulu hori gorago aipatutako LOPDko 6.2 artikuluekin lotu behar da. Hau da, guztiz nabarmena eta arrazoizkoa dirudi osasunari buruzko datu pertsonalei eman nahi zaien tratamenduak helburutzat osasunadministrazioak esleituta dituen eskumenak behar bezala betetzekoa duela.

III

Aurreko lerrokadan ateratako ondorioa, osasunari buruzko datu pertsonalak babesteko erregimen juridikoak lortu nahi dituen helburuen interpretazio batetik atera da; eta interpretazio hori Bulego honen ustez, gorago esan den bezala, ez da batere behartua.

Baina beste zerbait pentsa badaiteke ere, egingo den tratamendua estaldura du halaber bigarren ikuspegi batetik ere: jasoko diren datuek duten izaera bereziaren eta tratamendu horrek lortu nahi dituen helburuen izaera bereziaren ikuspegitik, hain zuzen.



Horrela bada, LOPDko 7. artikulua datu horiek *“bereziki babestutza”* jotzen baditu ere eta zentzu horretan artikulua horren 3. idatz-zatiak honako hau xedatzen badu ere: *“arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko izaera pertsonaleko datuak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori”*, egia da artikulua horren 6. idatz-zatiak ondokoa ezartzen duela: *“Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa gorabehera, artikulua honen 2 eta 3. idatz-zatiek aipatu izaera pertsonaleko datuak tratatzeko modukoak izan daitezke, datu horiek tratatzea beharrezkoa denean prebentziorako edo medikuaren diagnostikoarentzat, osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikoentzat edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko, baldin eta datu horiek tratatzen baditu lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek, edo lanbideisiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek”*.

Eta, eskumen handiena duen doktrinari jarraiki, osasunari buruzko datuen erregimen juridiko partikularra ezartzen duen LOPDko 8. artikulua ondokoa xedatzen du: *“Lagapenaren inguruan 11. artikulua xedatutakoa gorabehera, erakunde eta osasun-zentro publiko zein pribatuek eta kasuan kasuko profesionalek eurengana jotzen duten pertsonen edo eurek tratatu behar dituzten pertsonen osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak trata ditzakete, estatuko edo kasuan kasuko autonomia erkidegoko osasunari buruzko legerian xedatutakoaren arabera”*

Ikuspegi horretatik ezin da kontuan hartu gabe utzi, hain zuzen ere, “orain historia klinikoei buruzko OSABIDE informazio-sisteman jasoko diren datuen pertsona titularrei (pazienteei) dagokienez Lagun-Aro kudeatzen ari zen lehen mailako arretako jarduera guztia Osakidetzan integratzearen “ondorio dela burutuko den tratamendua, alegia pertsonen osasunari buruzko datuak biltzea.”

41/2002 Legeak Historia Klinikoei buruz xedatzen duen erregimen juridikoa, gorago aipatua, bai eta Osasunari buruzko Lege Orokorren beste agindu batzuk ere (bereziki 10., 23. eta 61. artikulua), hau da, gorago transkribatutako 8. artikulua aipatzen duen *“osasunari buruzko legeria”* osatzen dutenak txosten onetan osorik eman gabe, komeni da gutxienez Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak gai horri buruz ezarritako doktrina gogoraraztea.

Horrela bada, Bulego horrek duela gutxi (hain zuzen Osakidetza-aren aurka emandako tutoretza-prozedura batean) ebatzitako urriaren 18ko 564/2004 Ebazpenak xedatzen duenez, *“historia horren helburu nagusia pazienteari osasun-laguntza egokia ahalbidetu eta bermatzea da, haren osasun-egoera benetan eta eguneratuta ezagutzeko funtsezkotzat hartzen den informazio oro erantsiz, betiere medikuen irizpideei jarraiki, bai eta laguntza-prozesu bakoitzean medikuek datu guztiak ahalik eta modu egokienean eta onenean ezagutu ditzaten ahalbidetzea ere”*. (4. Oinarri Juridikoa)

Era berean, oinarri horretan Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak ezarritako utzi du *“Arau horietatik (Historia Klinikoa arautzen dutenak) ondorioztatzen dela, alde batetik, pazientearen historia medikoa informazioaren konfidentzialtasuna ziurtatu eta pazienteen intimitatea bermatzeko moduan eta baldintzetan gordetzeko premia eta, bestetik, pazienteen osasunarekin lotutako datuak haiek trata ditzaketen medikuek behar bezala ezagutu ahal izatearen premia.”*

Arrazoibide horien interpretazio zuzenetik ondorioztatzen da, ezin baitzuen beste modu batera izan, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa osasunari buruzko datuen inguruan planteatzen zaizkion gaiei buruz erabakitze orduan behar-beharrezkoa den oreka bilatzen saiatzen dela pazienteen eskubideen eta haiek tratatuko dituzten medikuek beren



osasun-laguntza behar bezala emateko paziente haien osasunari buruzko datuak ezagutu behar izatearen artean.

Aurreko gogoetak eskubideen tutoretza-prozesu batean (zehazki osasunari buruzko datuak deuseztatzeko prozesu batean) eginak diren arren, ez dugu inolako eragozpenik aurkitzen, alderantziz, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak izandako zentzuzko jokabide hori hemen aztergai dugun kasuari aplikatzeko.

Hortaz, translazio hori eginik, Datuak Babesteko Euskal Bulego honek garbi du, inolako zalantzarik gabe, Osakidetzan integratuko diren pazienteen osasunari buruzko datuen bilketa eta datu horiek historia klinikoan OSABIDE informazio-sisteman sartzea guztiz beharrezkoa dela, prebentzio eta diagnosi medikoarentzako bakarrik ez, baita batez ere paziente horiei osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikuak emateko eta osasun-zerbitzuen kudeaketarako ere.

Ez dugu ahaztu behar, oraingoan ere doktrina onenari jarraiki, orain aztertzen ari garen ikuspegitik, historia klinikoa osasunaren helburua betetzeko nahitaez erabili beharrezkoa den eta osasun-zerbitzua emateko beharrezkoa datu guztiak biltzen dituen osasunari buruzko datuen fitxategi edo artxibo gisa defini daitekeela.

Horrela bada, guztiz zentzuzkoa, orekatua eta inolaz ere funtsezko eskubideren bat urratzen ez duena ikusten dugu datu horiek pazienteen adostasunik gabe jasotzea. Horretarako, kontuan hartu behar dira, batez ere pazienteentzat beraientzat, datu horien bilketak dituen helburu garrantzitsuak.

Aurreko ondorio hori ateratzen laguntzen dute, gainera, egindako kontsultatik ondorioztatzen diren bi gertakarik. Lehena da LOPDko 7.6 artikulua arabera, “datu horiek lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek, edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharra duen beste pertsonaren batek tratatuko dituela”. Bigarrenari dagokionez, berriz, gutxienez hasieran, Osakidetzan integratuko diren hiru medikuei esleituko zaiela ordura arte artatzen ari ziren talde berbera.

Bulego honen ustez eta hasieratik esana geratu den bezala, bada egingo den tratamendua aztertzeke beste hirugarren ikuspegi bat ere, tratamendu horri behar adinako estaldura juridikoa emango liokeena.

Ikuspegi horren oinarria litzateke berez tratamendu baten aurrean ez gaudela aintzat hartzea; hau da, tratamendu bat baino errazagoa da, fitxategi-jabetza baten aldaketaren aurrean gaude, aldaketa hori egin ondoren pribatu izatetik publiko izatera pasatuko den fitxategi baten aurrean. Eta hori guztia integrazio gisa ezagutzen den prozesu baten esparruan edo ondorioz, edo zuzenbidearen beste alor batzuetan ohikoak diren izenak erabiltzearen, “subrogazioko” edo “ondorengotzako” prozesu baten esparruan edo ondorioz.

Hau da, esan daiteke prozesu horretan alderdiek ituna egin dutela eta horren arabera orain arte alderdi batek ematen zuen zerbitzua itun horretan aurreikusitako egunetik aurrera beste alderdiak eman beharko duela; eta bigarren hori dela, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-esparruan zerbitzu hori izaera orokorrekin ematen duena.

Bada zentzu horretan ezin da kontuan hartu gabe utzi Kode Zibileko 1258. artikulua, hain zuzen ondokoa dioena: *“Kontratuak adostasun hutsez hobetzen dira eta hortik aurrera behartu egiten dute, espresuki itundutakoa betetzera bakarrik ez, baita beren izaeraren arabera onustearren, erabileraren edo Legearen arabera diren ondorio guztietara ere”*.



Kontratuei buruzko teoria orokorraren barruan sartuta dagoen agindu hori kontuan izanik, Datuak Babesteko Euskal Bulego honen ustez, ituna behar bezala burutu eta garatzeak, azken batean hura betetzeak, batez ere emango den zerbitzuaren garrantzia aintzat hartuta, zerbitzuaren onuradun izango diren pertsonen osasunari buruzko datuak ezinbestean zerbitzu-emaila berrian sartuta eta haren jabetzapean geratzea eskatuko luke, bestela ezinezkoa bailitzateke hark zerbitzua modu egokian ematea.

Baldintza horrek, gorago ikusi denez, legea beteko luke (Osasunari buruzko Lege Orokorra eta Pazientearen Autonomiari buruzko Legea) eta era berean bat etorriko litzateke ohiturarekin eta onustearekin ere, osasunari buruzko datu horiek jada zerbitzu horren onuradun ziren pertsonen gainerako datuei dagozkien bermeen eta eskubideen erregimen berberaren menpe geratuko liratekeen neurrian.

Kontuan izan behar da, gainera, erregimen hori oso garatuta dagoen sistema publiko batek abalatzeko duela; izan ere, bertan azpimarratzekoak dira segurtasun-gaietan ezarrita dituen neurriak, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak zehatz-mehatz aztertu dituenak, eta Bulego horren kritika ezin hobek jaso dituztenak (*“Orain arte adierazitakoaren ondorio gisa, esan daiteke Osabide informazio-sistemak zorrotz betetzen dituela osasun-datuak jasotzen dituzten fitxategientzat Segurtasun Neurrien Araudiak eskatzen dituen neurri gehienak”* dio hitzez hitz urriaren 20ko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren 510/2003 Ebazpenak) eta Ebazpen horren ondoren, zalantzarik gabe, are gehiago hobetu direnak.

Azkenik, eta laguntzeko xedez besterik ez, burutuko den prozesu zehatza ezagutzen ez dugula abiapuntutzat hartuz, esan beharra dago, orokorrean, egingo diren tratamenduek arau bidez eskatzen diren neurriak bete behar dituztela.

Tratamenduaren xede izango diren datuen izaera aintzat hartuta eta, kasuaren berezitasuna ere kontuan harturik, datu-bilketan datzan tratamenduak bereziki kontuan hartu beharko ditu garraiorako baldintzak, kopiak egiteko baldintzak, datuak fisikoki jasotzeko baldintzak eta tratamenduari dagozkion alderdi instrumental horiek guztiak, LOPDko 9. artikulua eskatutako moduan (*“fitxategiaren arduradunak eta, hala dagokionean, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen segurtasuna bermatuko duten eta haiek aldatu, galdu, tratatu edo baimenik gabe ezagutzea saihestuko duten neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu beharko dituzte, batez ere teknologiaren egoera, bildutako datuen izaera eta dituzten arriskuak, giza ekintzatik edo ingurune fisiko nahiz naturaletik eratorriak, kontuan hartuta”*), bai eta ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuan, datu pertsonalak jasotzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriak arautzen dituenean, zehaztutakoa ere eta, azkenik, aztergai ditugun datuak tratatzeko egindako segurtasun-dokumentuetan zehaztutakoa.

ONDORIOAK

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenaren indarrean, interesdunen adostasunik gabe eta haiei inolako informaziorik eman gabe, Osakidetzan integratzen diren pertsonen osasunari buruzko datuen tratamenduak datuak babesteari buruzko araudia betetzen du.

Vitoria - Gasteiz, 2005eko apirilaren 11